


TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko urtarrilaren 19a. VIII. urtea. 2.160. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Orexako Kontsu tabernak urtebete darama zabalik, herria girotuz

Nereo Cantero azpeitiarrak hartu zuen iaz herriko taberna bakarraren ardura eta «gustura» aurkitzen da; asteazkenetik igandera egoten da zabalik Kontsu ◦6



Nereo Cantero Kontsu tabernaren atarian. MAIER UGARTEMENDIA

→ Tolosako errepideak konpontzeko plana.

Tolosako Udalak herriko galtzadak txukundu nahi ditu Inauterian aurretik. Horretarako, lehenik azterketa egin dute eta «bertan atzeman diren beharren arabera lehentasunak zehaztu dira». Konponketak sei zonaldetan kokatu dituzte ◦2

Leitzako lhoteak etzi hasiko dira atsaure txikien kalejirarekin

Larunbatean eskelarien bazkaria egingo dute Aurreran. Ondoren, herriko etxeetatik barrena eskean ibiliko dira. Astelehenean eta asteartean baserrietako itzulia egingo dute ◦7

San Sebastian eguna Berrobin, Orendainen, Berastegin eta Leaburun

Berrobin ospakizun berezia egingo dute, lapurtutako santuaren ordezkoa aurkeztuko baitute ◦4

Tolosa CF taldeko atletak domina ugari lortu dituzte

Gipuzkoako Txapelketan urdinek 31 domina lortu dituzte eta Euskadiko Kros Txapelketan emaitza bikainak lortu dituzte, taldeka eta banaka itsura bikaina eskainiz ◦3

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

ADI!

urtarrilaren 21ean
harpidedunentzako

**ESKAINITZA
BEREZIA**



Araba etorbidearen sarrerako errepidean dauden zuloak tapatuko dituzte datozen asteetan. E. EZEIZA

Inauteriak baino lehen konponduko dituzte errepide sareko galtzadak

Lanak 6 aste inguruko iraupena izango dute; bidegorri sarearen pintaketa orokorra ere egingo dute

Erredakzioa Hirigintza

Martxoaren 3an hasiko dira Inauteriak eta ordurako Tolosako errepide sareko galtzadak asfaltatuko dituztela esan du udalak. Datozen egunetan hasiko dira lanekin eta uraren saneamendurako kolektorearen lehen faseko lanak bukatu direlako erabaki dute une hau dela egokia.

Lanak egiteko galtzada guztien egoera aztertu dute eta «bertan atzeman diren beharren arabera lehentasunak zehaztu dira, horiek konpontzen hasteko», argitu du Tolosako Udalak.

Lanak astelehenean, hilak 24, hasiko dira eta 6 aste inguru iraungo dute, horrela Inauteriak baino lehen dena prest egoteko. «Eguraldiaren arabera litekeena

da aurreikusitako epeak moldatu behar izatea», zehaztu dute, hala ere.

Trafikoa

Orokorrean, lanek ez dute trafikoa eraginik izango, hau da, ez dute kalerik itxiko edota trafikoa geldituko, asfaltatzerakoan izan ezik. «Hauetan, mozketak aurreikusitak dira, baina egun batekoak gehienera ere», azaldu dute.

Era berean, lan hauez gain bidegorri sarearen pintaketa orokorra ere egingo dute.

Aipatu ekintza plana aurrera eramateko batetik, herriko kale eta errepideen egoera aztertu dute, eta bestetik, tolosarrek eginitako eskariak ere hartu dituzte kontutan. Era berean, etorkizuneari herrian egingo diren lanak ere hartu dituzte kontutan. Esaterako, Larramendi kalean egingo diren lanek epe motzean egingo diren aldaketak aurrikusten dituzte.

Lanen ardura Guipasa SAU enpresak du eta aurrekontua 219.354,38 eurokoa da.

↓ Zonaldeak eta konponketak

■ **Amarotz auzoa.** San Blas auzora bitarte hiru lan egingo dituzte: zuloak tapatuko dituzte, gainazala asfaltatuko dute eta gainazalaren azpialdeko zoru ere konponduko dute. Lan hauek 6 eguneko iraupena izango dute.

■ **Araba etorbidea.** Olarrain auzora bitarte, San Esteban auzoa barne, dauden zuloak tapatuko dituzte. Araba etorbidearen sarrera ere asfaltatu egingo dute. Obra hauek egiteko 5 eguneko epea izango dute.

■ **Rondilla, Pedro Tolosa eta Lekuona Pintorea kaleak.** Kale hauek asfaltatuko dituzte. Azken honetan eta Beotibar kalean trafikoaren noranzkoa aldatuko dute obren ostean. 7 egunetan burutuko dituzte lan hauek.

■ **Santa Luzia auzoa, Ion Andoni Irazusta kalea eta Ibaiondo arteko errepidea.** Errepideko zuloak tapatuko dituzte. 5 eguneko iraupena izango dute lan hauek.

■ **Iurramendi auzoa, Paper kalea eta Eroski ingurua.** Dauden zuloak tapatuko dituzte. Eroskiren eta Oriá ibaiaren arteko errepidea ere asfaltatuko dute. 7 eguneko iraupena izango dute lan hauek.

■ **Berazubi auzotik Amaro auzorako biribilgunerainoko aldapa.** Aldapa asfaltatuko dute. 3 egunetan egingo dituzte lanak.

Abian dira Inauterietako lehen prestaketa lanak

Karroza eta konpartsek izena eman dezakete jada; kosaken lehen entsegua larunbatean izango da

Erredakzioa Inauteriak

Udalak jakinarazi duenez astelehenean zabaldu zuten Inauterietako konpartsa eta karrozen lehiaketan izena emateko epea. Horretarako kultur etxera jo daiteke, bai goizez eta baita arratsaldez ere, edota *on line* egin www.tolosakudala.org/inauteriak/ webgunearen bitartez. Epea otsailaren 25ean 13:00etan amaituko da. Izena ematerakoan zerbaki bat banatuko dute eta zerbaki hori da Inauterietan emanaldian zehar bistan eduki behar dena.

Konpartsa eta karrozen ezaugarriak

Karrozen plataformen gutxiengo neurriak hauek izango dira: 2,5 metroko zabalera, 7 metroko luzera eta metro bateko altuera. Derrigorrez ibilgailu baten gainean egin behar da edo atoiaren eraman eta soinua ekipoa eraman beharko du (gehienez 1.500 W), emanaldia prestatu beharko dute, su-itzalgailua eraman beharko da eta gutxienez bost urte baino gehiago duten bost partaideek osatu beharko dute.

Konpartsei dagokionez, ez dago gutxieneko neurririk eta adinen arabera banatutako lau talde daude.

Bai karrozek eta baita konpar-

tsek ere 02:00etarako amaituko beharko dituzte emanaldiak.

Epaimahaia Tolosako Udalak eta Inauterietako karroza zein konpartsen lehiaketako ohiko parte-hartzaileen ordezkariak adostua osatuko da. Sari banaketa martxoaren 11n egingo dute 19:00etan udaletxeko batzar aretoan.

Haur danborrada

Aipatu bezala Inauterien lehen prestaketa lanak abiarazi dituzte jada herriko talde eta elkarte desberdinek, baita Aiz-Orratz elkar-teak ere.

Urtero antolatzen du haur danborrada eta honen baitan ateratzen diren kosaka konpainiaren lehen entsegua larunbatean, hilak 22, izango dela argitu du. 15:30ean izango da Eduardo Mokoroa musika eskolan eta izena emateko ere lehen entsegura joateko eskatu dute.

San Bernardoren 50. urteurrena

Era berean, San Bernardo Eskaut Gia taldeak 50 urte betetzen ditu aurten eta hori dela eta ekitaldi desberdinak burutuko dituzte. Horietan lehena Inauterietako Astelenitako konpartsaekin du zerikusia, bertan 50 urte hauetan taldeak pasa diren lagunak bildu nahi dituzte eta.

Konpartsan parte hartu ahal izateko izena emateko epea etzi bukatuko da eta horretarako 652 76 90 59 telefono zenbakira deitu behar da edo sanbernardo.ihauteriak@gmail.com helbidera idatzi.

● tolosa@hitza.info



Iazko Inauterietako konpartsen irudia. A. MAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aurrera Saiazeko pilotarien asteburuko partidak

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketek aurrera jarraitzen dute; eskualdeko pilotari ugari egon dira bertan

Erredakzioa Pilota

Joan dena datorrena bezalako izango da, hau da, pilota partidaz beteriko asteburua. Eskualdean pilota eskola ugari izaki, adin guztietako kirolariak lehia ugari jokatzen dituzte han eta hemen. Alde batetik Euskadiko Txapelketako norgehiagokak lehiatu dira eta bestetik, Gipuzkoakoak. Hona hemen emaitzak:

↓ Emaitzak

PILOTA

EUSKADIKO TXAPELKETA	
Zaramaga	18
Balerdi (Aurrera Saiaz)	7
San Miguel	22
Zelaia (Aurrera Saiaz)	13
Lea Ibarra	2
Mugika (Aurrera Saiaz)	22
Zaramaga	21
Otaegi (Aurrera Saiaz)	22
Maestu	22
Zubiri (Aurrera Saiaz)	10
Arkupe	6
Mugika-Aburuza (A. Saiaz)	22
Txaruta	4
Labaka-Elustondo (A. S.)	22
Hernani	20
Sukia-Zinkunegi (A. Saiaz)	22
Adiskide	22
Quina-Biain (A. Saiaz)	17
Irurtzun	12
X. Urbieta-K. Galarraga	22
Ozkarbi	20
Narbarde-Telletxea (A. S.)	22
GIPUZKOAKO TXAPELKETA	
Txapagain	7
Iñaki-Ioseba (A. Saiaz)	16
Inburre 4	3
Iñaki-Ander (A. Saiaz)	18
Inburre 2	14
Ioseba-Oinatz (A. Saiaz)	18
Anltasuna	1
Iban-Aitor (Aurrera Saiaz)	18

Tolosa CF atletismo taldeak emaitza bikainak lortu ditu asteburuko probetan

Erredakzioa Tolosa

Asteburuan atletismo proba ugari jokatu dira Gipuzkoako Txapelketaren eta Euskadiko Kros Txapelketaren barruan. Tolosa CF taldeko kirolariek emaitza bikainak lortu dituzte, domina ugari ekarri baitituzte eskualdera.

Gipuzkoako Txapelketa

Pista estaliko lehia Donostiako Belodromoan jokatu zen ostiralean eta larunbatean. 303 kirolarik hartu zuten parte bertan eta hauetatik 84 Tolosa CF taldekoak ziren. Urdinek guztira 31 domina irabazi zituzten: urrezko hamabi, zilarrezko hamaika eta brontzezko zortzi.

Junior mailan, Aitor Zabalak bi urrezko domina lortu zituen, 60 eta 200 metroan. Denbora onak lortu zituen gainera, Espainiako txapelketarako sailkatu zen. Oihana Pelaezek ere urrezko domina lortu zuen pisu jaurtiketan, 10 metroko distantzia gaindituz.

Jubeniletan Iruñe Agirrezabalak luzera jauzian urrezkoa lortu zuen, 5,27 metroko salto batekin. Hernialdeko Andrea Maderak 60 metro hesietan proba irabazi zuen. Patxi Elosegik distantzia berean, hesirik gabe baina, emaitza bera lortu zuen, 7,45 segundo-ko denborarekin.

Kadeteetan, guztira 20 domina lortu zituzten Tolosa CFkoek. Urrea ondorengoek eskuratu zuten: Ane Bengoak, Jon Ander Aurkiak, Julen Iruretagoienak eta Ander Lakunzak.

Eskadiko Kross Txapelketa

Arabako Araian jokatu zen proba igandean. Kadete mutiletan, Tolosa CF taldea lehen postuan gelditu zen. Nesketan berriz, taldeak brontzezko domina lortu zuen.

Junior mutiletan, Euskadiko txapeldun gelditu ziren, Unai Arroyok lortu zuen lehen postuari esker. Taldeko beste kide bat, Ander Ortiz, hirugarren gelditu zen.

Beste mailetan, taldeak osatze-ko adina korrikalari irten ez zirenez, Tolosa CF-ek ez zuen parte hartu klub mailan. Hala eta guztiz ere, taldeko korrikalariak lehian aritu ziren. Horrela, jubentil mutiletan Iker Beristainek hirugarren postua lortu zuen. Nesketan aldiz, Tamara Lozano bigarren gelditu zen.

Hemendik aurrera, neguko gailontzeko txapelketak jokatuko dira. Tolosa CF taldeko arduradunek emaitza bikainekin jarraitzea espero dute, kirolarien lana txalotzearekin batera.



Kadete neskek Euskadiko hirugarrenak gelditu ziren. HITZA



Kadete mutilak Euskadiko txapeldun gelditu ziren. HITZA



Junior mutilak Euskadiko txapeldunak gelditu ziren. HITZA

Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZA

■ **Telefono arreta.** Ingelera eta alemana menderatzen dituen pertsona baten bila gabiltza, telefono arreta zerbitzuan lan egiteko. Interesatuak deitu 943 31 86 00 telefono zenbakira edo bidali curriculumak info@logikaline.com

posta elektronikora.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Bolder Collie arrazako txakurra galdu da Tolosan. Txuria eta beltza da. Ikusi edo aurkitu duenak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10.

Gaur jasoko du Urrezko Danborra Xabi Alonso tolosarrak

Erredakzioa Tolosa

Xabi Alonso futbolari tolosarrak gaur jasoko du Urrezko Danborra, Donostian. San Sebastian eguna bihar izango da, baina Real Madril bere taldeak Atletico Madrilaren aurkako Espainiako Kopako partida jokatu du bihar. Saria jaso ondoren hegazkinaz itzuliko da Madrilera. Urrezko Danborra San Sebastian bezperan ematen den lehen aldia izango da.

Hasiera batean Alonsoren presentzia ez zen ziurra, partida zela medio. Ondoren bezperan banantzeko ideia eta aukera sortu zen. Hala eta guztiz ere, gaurko ekitaldiak eztabaida sortu du, aurrekari bilakatuko baita.

Tolosaldea Garatzenek antolatutako ipuin kontaketa, ingelesez

Erredakzioa Ibarra

Bihar, hilaren 20an, ingelesezko ipuin kontaketa saioa egongo da Ibarra Benito Izagirre kultur etxean.

Ekimena 17:30ean hasiko da eta Tolosaldea Garatzenek sustatzen duen *Mundu bai Tolosaldean* programaren baitan kokatzen da. Ingeleseko ipuin kontaketa 6-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Tolosaldea Garatzenetik eskualdeko haurrak saiora gonbidatu nahi izan dituzte.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2010eko abenduaren 10ean, onartu zuen enkante publiko baten bidez saltzea Tolosako Inpernu kaleko 1-1.C helbidean dagoen udal jabetzako etxebizitza.

Baldintza-pegua ikusgai dago Tolosako Udalaren webgunean eta sarrera-erregistroan (Plaza Zaharra 6).

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011ko urtarrilaren 14(e)an argitaratu dute; beraz, eskaintzak egiteko epea bukatzen da 2011ko otsailaren 18an, 13:00etan.

Tolosan, 2011ko urtarrilaren 14an
ALKATEA
Jokin Bildarratz Sorron

San Sebastian eguna Tolosaldean ere ospatzen da

Santuaren izena daramaten ermitetan meza egingo dute lau herrietan; ondoren jai giroa nagusituko da

Maier Ugartemendia

Ospakizun berezia izango dute Berrobin. Orain dela ia bi urte lapurtu baitzuten XVII. mendekoa zen santua. Balio ekonomikoa ez zuen arren, herritarrentzat balio sentimental handia zuen. Horregatik, «poz-pozik» daude berritze lanetan ari direnak eta «bihotz-bihotzez» eskertu nahi diete laguntza eman duten herritar guztiei. Kristau elkarteak hil guztien hasieran eskaera bat egiten zuen ermita berritzeko eta santu berri bat izateko.

Duela 400 urte Lapatzeko markesak egin arazi zuen San Sebastian ermita, eta karreteraren ondoan egin arazi zuen jendea ermitara joan zedin. Lau mende beranduago herriko bi gizon eta lau emakumeri esker ermita berritua eta santu berria izango dute berrobitarrek.

Santu berria Luis Eraso berastegiarrak egin zuen, nahiz eta, tailatzen aditua ez izan. Santua margotu, berriz, Arantxa Mujika berrobitarrek egin du. Lan luzea egin behar izan duen arren, «gustura» dago egindako lanarekin.

Honengatik guztiagatik, berrobitarrentzat ospakizun berezia izango da biharkoa. 17:00etan me-

za izango dute San Sebastian egunean. Mezaren hasieran edo amaieran santu berria inaguratuko dute. Ondoren, meriendatxo bat izango dute bertaratzten direnek.

Orendain, Leaburu eta Berastegin ere ospakizunak

Orendainek ere badu San Sebastianen zaindaritzapeko basiliza bat. Ermita 1656rako eraikita zegoela dakigu, herri bideen azterketa batean «San Sebastianen etxe berria» aipatzen delako. Agiri honengatik pentsa genezake etxea orduan eraiki berria izan zela. Hala ere, 1566an Gracia de Lizarribarrek egindako testamentuan jada aipamen bat egiten dio San Sebastian basilizari.

Bihar Orendainen ere santu honen omenezko ospakizuna izango dute. 10:45etan hasiko dute ospakizuna herriko plazatik, txistulariekin alaituta kalejiran joango direlarik ermitaraino. Eguraldi ona izango balitz, herritarrei ibilgailuak herrian utzi eta txistulariaren atzetik oinez ermitaraino joatea eskatzen zaie. 11:00etan meza izango dute San Sebastian ermitan. Ondoren, udaletxean hamaiketako hartuko dute. Ospakizuna borobiltzeko, 14:00etan Eltxoak elkartean bazkaria izango dute.

Leaburun ere ospatuko dute santuaren eguna. 17:30ean meza izango dute San Sebastian ermitan. Ondoren, herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute ermitaren kanpoan. Bukatzeko, afari-



San Sebastian santuaren irudi berria dute Berrobin. MU

meriendaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek Zazpi Bide elkartean.

Berastegin, 10:00etan izango dute meza. Ondoren, hamaiketako egingo dute ermitaren kanpoan. Berastegiarrak ere santua lapurtu zieten, orain dela ia bi urte. Hori dela eta, Luis Erasok egin du Berastegin ere santu berria.

Ospakizunez betetako eguna izango da biharkoa Tolosaldean. Gipuzkoako herri askotan du San Sebastianek basiliza, eta horren erakusle dira eskualdean hainbat herritan dauden ermita ezberdinak.



Ermita kanpotik eta barrutik berritu dute. MU

↓ Egitarauak

BERROBI

■ **17:00.** Meza eta santu berriaren inagurazioa egingo dute. Ondoren, meriendatxo bat eskainiko diete bertaratzten direnei.

ORENDAIN

■ **10:45.** Herriko plazatik, txistulariekin alaituta kalejira izango da ermitaraino.
 ■ **11:00.** Meza San Sebastian basilizan. Ondoren, udaletxean hamaiketako izango dute.
 ■ **14:00.** Eltxoak elkartean bazkaria izango dute herritarrek.

LEABURU

■ **17:30.** Meza San Sebastian ermitan. Ondoren, herriko dantzarien saioa eskainiko dute. Bukatzeko, afari-merienda izango dute herritarrek Zazpi Bide elkartean.

BERASTEGI

■ **10:00.** Meza San Sebastian ermitan. Ondoren, hamaiketako emango diete bertaratzten diren herritar eta inguruko guztiei.

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Ekarpena egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

- **Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)**
- **Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berrieta.info

www.berrria.info

www.euskaherriko plaza.com

iragarkilaburrak.com

www.amaiika.com

www.berria.com

berria taldea

Unai Muñoa berrobotarrak aurten ere parte hartuko du *Donelontxo* taldean, Lizarralde eta Labayenekin. HITZA

Korrontzi & Oinkari zuzenean Victoria Eugenia Antzokian

Erredakzioa Villabona

Hilaren 23an, igandean Korrontzi & Oinkari Dantza Taldea zuzenean izango dira Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

Mungiako Korrontzi Folk taldeak eta Villabonako Oinkari

dantza taldeak beraien azken lana den *Infernuko hauspoa* DVDa aurkeztuko dute Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da eta sarrerak lortu nahi dituenak, www.victoriaeugenia.com helbidean sartu beharko du.



Oinkari Dantza Taldeko Ioritz Galarraga dantzaria. HITZA

Beterriko IV. bertsolari txapelketako lehen kanporaketa, ostiralean

Ageda Deuna eta Donelutxe nesken taldeen arteko lehia izango da, Andoaingo Ontza elkartean

Enertiz Maiz Bertsolaritza

Laugarren urtez jarraian antolatu dute Beterriko Bertsolari Txapelketa. Bertsolari gazteei plaza berriak eta jendaurrean jarduteko eta trebatzeko aukera eskaini asmoz antolatzen du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Era berean, bertsozaletasunaren erroak Beterri sakonago luzaitzeko xedea dute. Etzi, hilaren 21ean emango zaio hasiera. Sei nesken arteko lehia izango da, Ageda Deuna hirukotea, Donelutxe hirukoaren aurka ariko da.

Santa Ageda edo Ageda Deuna taldea, Alaia Martin oiertzuarrrak, Jone Uriá algortarrak eta Miren Amuriza berriztarrak osatzen dute. Aldiz, Santa Lucia edo Donelutxi taldea, Uxue Alberdi

elgoibartarrak, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak eta Onintza Enbeita muxikarrak osatutakoa da. Andoainen emago diete hasiera txapelketari eta dagoeneko txartel guztiak salduta daude.

Asteasun eta Villabonan Hurrengo kanporaketa Asteasuko Aitz-Ondo elkartean izango da hilaren 28an. Kanporaketa haue-tako irabazleek finala otsailaren

12an jokatu dute Villabonako Behar-Zana elkartean.

Asteasuko eta Villabonako saioetarako txartelak salgai daude: Larramendi Bazkunaren eta Aiurriren egoitzetan (Zizurkil/Andoain/Urnieta), Patxine taberna-jatetxean (Asteasu), Basajaun eta Kazetaria liburudendetan (Villabona) eta Ernaitza eta Stop liburudendetan (Andoain).

↓ Beterriko IV. Bertsolari Txapelketa

1. KANPORAKETA

- **Eguna.** Urtarrilak 21, ostirala.
- **Ordua.** 20:30.
- **Tokia.** Andoaingo Ontza elkartea.
- **Parte-hartzaileak.** Ageda Deuna, Donelutxeren aurka.
- **Gai jartzailea.** Alaitz Sarasola.

2. KANPORAKETA

- **Eguna.** Urtarrilak 28, ortirala.
- **Ordua.** 20:30.

- **Tokia.** Asteasuko Aitz-Ondo elkartea.

- **Parte-hartzaileak.** Doneztebe taldea Donelontxoren kontra.

- **Gai jartzailea.** Jon Zaldúa.

FINALA

- **Eguna.** Otsailak 12, larunbata.
- **Ordua.** 20:30.
- **Tokia.** Villabonako Behar Zana elkartea.
- **Gai jartzailea.** Amaia Agirre.

Igandean Zugarramurdi eta Sarara irteera Aizkarditik

Erredakzioa Villabona

Aizkardi Mendi Taldekoak igandean Sara eta Zugarramurdira egingo dute irteera. Izena emateko, 649 71 71 82 telefonora deitu beharko da 20:00etatik 22:00etara edo elkartera joanda osteguna baino lehen.

Saratik abiatuko dira eta Iban-teli (685m) mendia igoko dute. Lapurdi eta Nafarroako mugatik jarraituz Arxuria (760m) igoko dute. Jarraian Zugarramurdira (200 m) jaitziko dira ibilbidea bertan bukatuz. 18kilometro inguruko ibilbidea da eta sei ordutan egiteko modukoa. 07:00etan Olaederatik aterako dira.

Gaur 19:00etan greba orokorraren inguruko bilera Anoetan

Erredakzioa Anoeta

Hilaren 27ko greba orokorra dela eta, Anoetako udaletxean bilera zabala antolatu dute gaur 19:00etan. «Espainiar Gobernu, Europako eta munduko botere ekonomikoen irizpideak eta aginduak betez, langileriaren aurka neurri basatiak hartzen ari dela eta, honen berri jasotzeko eta guztien artean antolatzeko izango da» grebaren deitzaileek esan dutenez. Guzti honen aurrean «ezadostasuna azaltzea eta beste pentsio sistema, eta orohar beste gizarte eta ekonomia eredu bat posible eta beharrezkoa dela zabaltzeko beharra» ikusi dute.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareia** du

Txolarre irratiak antolatuta
Bertso Jaialdia

Urtarrilak 22 • Larunbata, 18:00etan Tolosaldeko Leidorren



LAGUN ARO GBC

Fuenlabrada
saskibaloia partida

Urtarrilak 23 • Igandea, 12:30ean Donostiako Ilunben



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareia** du



Ibarraldea

Kontsu tabernak orain dela urtebete zabaldu zituen berriz ateak; arduradun berria Nereo Cantero da

Maier Ugartemendia Orexa

2009ko abenduan berrireki zuen Orexako Kontsu taberna Nereo Cantero azpeitiarrak. Azken urte honetako balorazioa egiterakoan «positiboa» dela dio, eta orokorrean «gustura» dago izandako harrearekin.

Taberna denbora luzez itxia egon zenez, «berriro martxa hartzea kostatzen dela» dio Nereo Canterok. Hala ere, noiz behinka jendea ere irekita dagoen galdezka etortzen zaio, eta pixkanaka pixkanaka Tolosaldeko jendea ere berrezagutzen ari da Orexako Kontsu taberna.

Nereo Cantero bera da Kontsu tabernaz arduratzen dena, hala ere, asteburuetan laguntzatxoa bat izaten du eta bere emazteak sukaldean laguntzen dio. Beraz, familiarrean darama taberna azpeitiarrak.

Asteburuetan beti ere, «mugimendu gehiago egoten da». Kanpoko jende gehiago gerturatzen omen da ostatura, eta herrikoak ere asteburutan gehiago mugitzen omen dira.

Ordutegia

Taberna ia aste guztian egoten da irekita. Astelehenetan eta asteartetan atsedean eguna izaten duen arren, asteazkenetik igandera bitarte irekita egoten da. Gainera, egun guztian zehar egoten da zabalik, eta edozein ordutan joanda ere beti izaten da zerbait jateko aukera.

Jan faltarik ez

Kontsu tabernan astean zehar ez dute eguneko otordurik izaten, baina Nereo Canterok dio jan gabe ez dela inor gelditzen. Asteburuetan ogitarakoak eta karta txiki bat izaten dituzte aukeran.

Janari dagokionez «betiko jana» izaten dute aukera moduan otorduetan. Normalean aukeran izaten dituzte entsaladak, arrai zopa, piper beteak, txipirotiak, bakailoa plantxan etab. Hemendik aurrera, eskaintza bereziak egi-



Nereo Cantero da tabernaren arduradun berria. MAIER UGARTEMENDIA

Kontsu tabernaren urteurrenean «gogotsu»

ten hasi nahi du Canterok. Eskualdean hain ezagunak diren babarrun jateak eskaintzea gustatuko litzaioke, garaian garaiko produktuak erabiliz. Arkume errea ere eskaintzen hasteko asmoa dauka.

Menu hauek nahi izanez gero, aurretik erreserba egin beharko litzateke tabernako telefono zenbakira deituz. Era berean, taberna berrian telefona ere aldatu

dute. Beraz, erreserba egin nahi izanez gero 943 68 22 90 telefonora deitu behar da, orain. Horrez gain, senitarteko bazkariak, kuadrilen afariak, agur-afariak edota mota ezberdinetako ospakizunetarako otorduak antolatzen prest dago arduraduna. Horrelakoetan, berarekin telefonoz hitz egin eta antolatzea da. Bestalde, eguneroko otorduak ere egin daitezke Kontsu tabernan. Aste guz-

tian zehar, baita asteburuetan ere, bazkariak zein hamaiketakoak egin daitezke bertan, mendi buelta bat eman ondoren, adibidez. Nereo Canterok inor gosez ez geratzea, eta jendea «gustura» gelditzea nahi du. Hori baita berri ere jendea gerturatzeko modurik onena. Berarentzat garrantzitsua bertaratzen den jendea pozik eta hurrengo baterako gogoz uztea da.

Orexa eskualdeko herririk laisaienetako bat dela esan daiteke. Horregatik, leku paregabea izan daiteke arratsalde lasai bat familia giroan pasatzeko. Herritik gertu mendi buelta politikak egin daitezke, eta herrian bertan frontoiaz edo jarri berri duten rokodromoaz gozatzeko aukera dago.

Jada ez dago aitzakiarik Orexara arratsalde pasa ez joateko, ikusi bezala aukera ezberdinak eta politikak ematen baititu.

Herri txikia, baina bizia

Orexa herri txikia den arren, bizi handia du. Horrelako herri batean beharrezko da herritarrek eurek bizitasuna ematea.

Hala ere, orexarrak ez daude geldirik eta ekitaldi ezberdinak antolatu ohi dituzte. Horren adibide, asteburu honetarako antolatu duten diapositiba erakustaldia da.

Juan Mari Iriondo herritarra eta bere lagunak Mongoliara joan zirela eta, hilaren 22an, 20:00etan diapositiba erakustaldi bat antolatu dute herritar guztientzat, ganbaran. Ondoren, herriko tabernan afaria izango dute. Izena tabernan eta elkartean eman daiteke. Tabernara telefonoz deitu daitezke izena emateko. 20 euroko menua eskainiko zaie joaten direnei. Beraz, Orexako herriak berri ere bizi gehiago emango dion betiko taberna zabalik dauka. Nereo Cantero eta bere familia jendea esku zabalik hartzeko prest dago, horren erakusle berak dioena: «Jendea animatzen bada, gu hemen egongo gara».



EGUN PASA BOROBILA

Orain dela gutxi jarri berria dute rokodromo bat herrian bertan. Tolosaldean eskalate ohitura handia dago, eta Orexan eskalatez gustatze zaion edonork aukera bikaina izango du, tabernaren ondoko paretean rokodromo bat egin baitute. Agian, zailtasun handikoa ez den arren, egun pasa borobiltzeko aukera bikaina eskaintzen du tabernariak eta Orexako udalak jarritako rokodromoak.

hitza
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Arabako etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betirik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.A.-ren hitza egunkaria automatikoki batera pasatu direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, zure datuak ez dira salduzkoak. Hala ere, zure datuak ez dira salduzkoak. Hala ere, zure datuak ez dira salduzkoak. Hala ere, zure datuak ez dira salduzkoak.



Iazko Ihoteetan kalejiran atera ziren hainbat lagun bertako atsaureak jantzita. A. IMAZ

Atsaureen eta 'eskelarien' egunak

Ihoteak ostiraletik asteartera izango dira; astearteko atsaureen kalejira indartzeko, haurrena astelehenean

Erredakzioa Leitza

Leitza da eskualdean lehena mo-zorroen festa ekartzen duena. Bost egunetan Ihoteak ospatuko dituzte ostiralean hasi eta asteartera arte. Asteburu luzea izango dute, beraz, eskelari, atsaureak eta festan parte hartzen duten guztiak.

Egun nagusienak igandea, astelehena eta asteartea izaten dira. Ostiralean, etzi, badago ekitaldirik: eskolatik antolatutako kalejira eta Miren musikariaren kon-

tzertua. Larunbata giroa berotzen hasteko izaten da. *Eskelariak* bazkaria egingo dute Aurrera elkartean eta arratsaldean herriko kaleak alaituko dituzte. Ez dira faltako kontzertuak egun horretan.

Gurdiak eta atsaureak herriko kaleak hartuko dituzte igandean. Txaranga doinuek ez dute atsedunik izango. Kultur Taldeak eta Inauterizaleak taldeak dei egiten die herritarrei bertako atsaureak jantzita ateratzeko igandean zein asteartean. Hain justu, astearteko kalejira indartzeko, haurren kalejira aurren astelehenean izango da. Horrela, astelehenean *eskelariak* baserriz baseri dabil-tzanez, herrian festa giro handi-goa sumatuko da haurren kalejirarekin. Puzgarriak astelehene-tik asteartera aldatu dituzte.

↓ Egitaraua

ILBELTZEN 21A, OSTIRALA

- **15:15.** Erleta eskolatik atsaure umeen kalejira.
- **22:30.** Miren musikariaren *Laztanten nauen eskua* azken diskoaren aurkezpena zineman.

ILBELTZEN 22A, LARUNBATA

- **14:00.** *Eskelarien* bazkaria Aurreran.
- **16:00.** Herriko eskea eta egitarauaren banaketa.
- **20:30.** Kontzertua plazan, Atekabeltz gaztetxeak antolatu-ta. Afal ondoren kontzertuak eta horren ondoren karaokea plazan.

ILBELTZEN 23A, IGANDEA

- **12:00.** Gurdiak kalejira industrialdetik aterako da eta atsaureen kalejira Inkansables txar-rangarekin plazatik aterako da.
- **12:00 eta 16:00.** Txu-txu tren-a. Ibilbidea: biribilgunea-eskola-Patxi Arrazola-biribilgunea.
- **14:30.** Atsaureen bazkaria Erleta eskolako jantokian.
- **18:00.** Kalejira txarangarekin.
- **19:00.** Gaubela plazan.
- **23:30.** Gaubela plazan. Ondoren txaranga.

ILBELTZEN 24A, ASTELEHENA

- **09:30.** Arkiskil, Sakulu eta

Gorritaran auzoetara joango dira eskera.

- **16:00.** Umeen kalejira atsaure-tuta.
- **19:30.** Gaubela plazan.
- **23:30.** Gaubela plazan. Ondoren txaranga.

ILBELTZEN 25A, ASTEARTEA

- **09:30.** Erasote auzora eskera.
- **11:30.** Zinema aretoan Txan magoaren emanaldia.
- **14:30.** *Eskelarien* bazkaria Aurreran.
- **16:00.** Puzgarriak frontoian.
- **18:30.** Atsaureen kalejira.
- **19:30.** Gaubela plazan.
- **23:30.** Gaubela plazan.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

SEBASTIAN WALIÑO ACEDO jauna

Non hasten da eta non bukatzen da munduko bizi garaia izan garena izango al da datozenen bizigaia Euskal Herrira etorri zinen zure portua, Zumai-a zure bilobek segiko dute zuk hasitako bidaia

Josuren eta Itziarren koadrilla

Zumaia, 2011ko urtarrilaren 19a

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskuracina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818. tolosa@iragarrinet
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MENDI IRTEERAK

- **Tolosa.** Hilaren 22 eta 23an Frantziako Pirineoetara joateko irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Larunbatean 07:00etan irtengo dira Gavarnie aldera. Igandean Saint Pe de Bigorre herrian dagoen trabesia espeleologiko bat egingo dute. Bertan 6 rapel egingo dituzte eta altuena 30metrotakoa dela argitu dute. Izena emateko deitu 688 69 86 42 telefono zenbakira edota idatzi info@oargi.org helbidera.
- **Ibarra.** Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak asteburu pasa egingo dute hilaren 22 eta 23an Zuberora ezagutzeko. Larunbatean 08:30ean irtengo dira herriko plazatik.
- **Villabona.** Aizkardi mendi taldeak Sara-Zugarramurdira joateko irteera antolatu du igandera. 07:00etan irtengo dira Olaederra kiroldegitik. Izena emateko deitu 649 71 71 82 telefono zenbakira (20:00-22:00). Izena emateko azken eguna bihar izango da.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Maria Luisa Gorrotxategiren margolanak urtarilla bukaera arte egongo dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan.

DEIALDIK

- **Tolosa, Villabona eta Anoeta.** *Udalbiltza aske! Justizia = Absolutioa* lelopean elkarretaratzeak 20:00etan udaletxe aurrean.
- **Tolosa.** 2011 urte honetan San Bernardo Eskaut Gia taldeak 50 urte betetzen ditu. Hori dela eta aurten Inauterietako Astele-nitako konpartsa berezia izatea nahi dute, 50 urte hauetan tal-

detik pasa diren guztiei bertan parte hartzeko gonbite berezia luzatuz. Izena emateko azken eguna etzi izango da eta horretarako bi bide daude, 652 76 90 59 telefono zenbakira deitzea edota sanbernardo.ihauteriak@gmail.com helbidera idatzea.

- **Elduain.** Haurreskoalako matrikula epea zabaldu dute. Hilaren 28ra arte, egun hau barne, eman daitezke izena. Haurreskoan bertan jaso daitezke izena emateko orriak (07:30-18:30).
- **Beterri.** Asteburu honetan hasiko da Beterriko IV. Bertsolari Txapelketa. Lehen kanporaketa Andoaingo Ontza elkartearen izango da ostiralean 20:30etik aurrera. Txartelak telefonoz ere eskatu daitezke, aurretik ordainduz gero 943 30 07 33 telefono zenbakira deituta.
- **Tolosa.** Bihartik aurrera Uda-berri dantza taldea Larrain dantzako ikastaroak eskaintzen hasiko da Usabal kiroldegian. Ikastaroak 18 urtetik gorako jendeari zuzendutakoak izango dira. Eskolak ostegunetan burutuko dira 20:30etik 21:30era. Izena emateko bertara agertzea besterik ez dela behar argitu dute dantza taldekoek.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



NORBERAREN ZAINKETARAKO GAKOAK

Minbiziaren Aurkako Elkarteak *Norberaren Zainketa Prozesu Onkologikoetan* izeneko tailerra eskaini zuen atzo Tolosan Emeterio Arresen duten bulegoan. Izan ere, azala, azkazalak, ilea, bekal-

nak... bezalako gorputzeko atalek tratamendu onkologikoen ondorioak pairatzen dituzte eta beraz, garrantzitsua da horrelakoetan zer egin behar den jakitea. R.CALVO

Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!

